

## 1.1. Aitzinsolasa

---

Hamargarren liburukira ailegatu da honekin EHHA egitasmoa. 2008an lehen liburukia atera genuenetik hamaika urtera goaz, eta urtero banaka atera ditugu hurrengo aleak. Hamaika zenbaki adierazkor eta seinalagarria ez gara heldu, baina hari orpoak jatera bai.

Lexikoak hartzen du liburuki honen eduki osoa. Azalean zerrendaturik ageri diren gai-esparruetako kontzeptuak dira mintzaigai: jokoak, kirolak, bertute-bizioak, gorputzeko eztasunak, larruazaleko gaitzak, gaixotasunak, heriotza, ezkontza, gizarte-bizitza, ahaidegoa, erlijioa, sinesteak, eta lana eta beharginak. Gai-esparru anitza, askotarikoa, berez; Atlasaren galdetegi osoaren 2322-2564 bitarteko galderak hartzen dituena, eta osoaren barruan ulertu beharreko aniztasuna; ez liburu barruan. Gai-ugaritasun horretan, esparru bakoitzeko kontzeptu jakin batzuk izan dira galdegai; denera heltzeko asmorik gabe.

Euskaltzaindia sortu zeneko mendeurrena ospatzen ari denaldi honetan dator X. liburukia bete-betean, eta beronekin amaitu hurren dugu *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a, osoro burutzeko falta den apurraren esperoan.

Atlasa euskara mintzatuaren memoria historikoa da, hein handi batean. Euskara transmisio naturalez ikasi duten eta egunero erabili duten XX. mendeko belaunaldien, berariaz lehen hiru hamarkadetan jaiotakoen, eta euskararen ezagupiderik eskola bidez edo hedabideen bitartez izan ez dutenen lekukotasuna islatzen duen memoria; belaunez belaun, gurasoetatik seme-alabetara euskararen eta euskarazko jakintza-edukien irakats-ikas bata-besteaganatzea izan dutenen memoria.

Euskal hizkuntzaren tradizioak ardatz nagusi bi ditu: bata, idatziz, izkribuzko literaturaren bidez gorde eta finkatu dena; idatzi zeneko hartan iraun duena, eta bestea, berbaz, hitzez, mintzoz jaregin duguna aurreko

belaunaldietatik, aldian-aldian aldatzen dena. Bigarren ardatz honi datxaka Atlasak biltzen duen hizkuntza corpusa.

Euskara normalizazio-bideetan sartu delarik, irakaskuntzan, hedabideetan, administrazioan eta gainerako gizarte gunetan, eta euskarazko literatura indartzen, euskal lexikoa ere finkatzen, bateratzen joan da; hitz batzuk nagusitzen, beste batzuk zokoratzen; batzuk baturatzen, beste batzuk euskalki-mailara mugatzen. Nolanahi ere, mintzairan ezagutu izan den aniztasuna estutzen joan da, oro har.

Baina dialektologia-atlas batek, are euskararen atlas batek, badu ildo bat, hizkuntza idatzi eta landuaren etorkizunari buruz hats eta arnasa eman dezakeena, literatura bidez hizkuntzari freskura eta arnasa berria eman diezaiokeena; leku jakin bateko edo jatorri jakin bat duen idazle bati hurbileko hizkuntza-erreferentziak eskura emango dizkiona, idazten duenean aipagarri derizkion hitz eta esamoldeak bideratuz.

Euskal hitzen erabilera-esparruak, kasu askotan, ez datoz bat tradizio idatzian eta hizkera mintzatuan. Ez dute oreka bera, oro har. Adibide bat, liburuki honetan ageri den *bull*a hitza, gipuzkeraz eta goi-nafarreran barren hedaturik azaltzen da; idatzizko tradizioan, aldiz, bizkaieraren ekialde eta erdialderantz ere ondo lekukoturik dago.

Sinonimoak diren hitzen artean, batzuk gailendu dira irakaskuntzan, eta besteak erdi estalian geratu. Eskoletan nagusi den *jolastu* aditza, haurrek bere-bere dutena, dibertsitate handiagoz eskaintzen digu Atlasak, non esaten diren *olgau*, *jostat*u / *yostat*u, *libertitu* edo *txostakatü* eta beste esangura berekoak seinalatuz.

Dialektologia-atlas corpus osagarria da OEH edo EH hiztegien, edota gizartean ibiliak diren beste hiztegi batzuen ondoan. Eremu semantiko

batzuetan lekukotasun laburra dugu euskara idatzian, nahiz gizarte euskaldunean tradizioz eragin handia ezagutu. Horietarikoa da liburuki honetan lantzen diren joko eta kirolena. Bola-jokoa, bat esateko. Jokorako erabilten den *bola, bolo, pirla / firla / birla, killa* izenen inguruan, jokoa bera nola izendatzen den ere adierazgarria da guztiz: *bolan, boletan, bolaka, boloetara, killaka, killetan, killakan*. Esan nahi da, bildu diren hitz anitz testuinguru barruan jaso izanak corpusari gainbalio handia ematen diola.

Azken liburukietan eta oraingo honetan berariaz, maparen azpian eskumako mandan lauki barruan jaso diren etnotestuen legenda ugaria eta aberatsa da, ez bakarrik hitzunen erregistroa bere horretan jasotzen delako; batez ere, lekukoek eurretan isuri duten herri-jakituriaren ederragatik. Esan gabe doa grabatuak diren ahozkoetan askoz eduki baliotsu gehiago dela; hautatze-ahalegin bat egin da, hizkera guztien arteko oreka jagonez eta informaziorik adierazgarriena hobetsiz.

Atlasa euskarri desberdinetan dago kontsultagai, aurreko urteetan baino eskurago, errazago eta emaritsuago. Inkestako kontzeptu bakoitzaren erantzunak, irakurritz, gainera, entzun ere egin daitezke: nola ahoskatu duen lekukoak, zein intonazio darabilen hitz bakoitzean... horrek transmisiorako ere duen aparteko garrantzia gogoan dela.

Argitaratua den corpus guztiko erantzunak lehen baino askoz errazago kontsulta daitezke; lehen liburukiz liburuki bilatu beharrekoa, dena batean: eremu semantikoen arabera, hitzen arabera, herrien arabera... Errazbide handia kontsulta egin den edozein herritako edukiak eskura izateko, norberak hobeto ezagutzeko zein irakaskuntza bidez transmititzeko. Webguneko lana ez da honekin amaitzen, aurrera doa. Eta Atlasa osorik argitara dedinerako kontsulta-bide integralago bat izango dugu eskura, Euskaltzaindiaren beste corpusekin saretuagoa eta osatuagoa.

Euskara biziaren lekuko den Atlas hau, bere hamargarren liburukian, izan bedi euskara zinez biziko duen gizarte baten zimendu eta zirikagarri.

Adolfo Arejita  
EHHA-ren zuzendari akademikoa  
Frantzisko Xabierko donearen egunez  
2018-12-03